



TAKOIDUN ZAPATA GORRIA

(tragedia odoltsu bat hiru ekintzatan)

Argiak itzalita dauden bitartean, edozer da posible. Nahi bezain garaiak izan gaitezke, zeruko hodeien zuri samurra hatz-puntekin ukitzeraino. Nahi bezain apalak izan gaitezke, oinpean aurkitzen ditugun zulo tipi guztietatik ihes egiteko. Eta nahi bezain libreak izan gaitezke, buru, beso eta hanketan haririk lotuta ez daukagula sentitzeko, gure kabuz higitzeko, nahikeria hutsez hara joan eta itzultzeko, joan eta itzultzeko, joan eta berriro sekula ez itzultzeko.

Ilunpea da txotxongiloen territorio libre bakarra.

Lan honek **Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdiaren** laguntza jaso du, eta **2017ko urriaren 28an estreinatu da** jaialdi horren egitarauaren barruan.

FITXA ARTISTIKOA

Aktoreak:

_Haizea Paris
_Jabi de la Ydalga
_Igor Arzuaga
_Mikel Ayllon

Zuzendaria:

_Pablo Ibarluzea

Gidoia:

_Mikel Ayllon

Karakterizazioa:

_Maite Gutierrez

Jantziak:

_Truca Rec

Iraupena:

20 minutu

14 urtetik gorakoentzat

PISZIFAKTORIA

www.piszifaktoria.eus

Harremanetarako:

piszifaktoria@gmail.com

620605150



lehen hitza

Takoidun Zapata Gorria **20 minutuko iraupena duen antzezlan labur bat da**, Piszifaktoria Ideien Laborategitik sortu den bigarren proiektua. **Ezohiko gunetan erakusteko obra bat da**, ez baitu eszenatoki baten beharrik (nahiz eta eszenatokirako ere moldagarria den). Hartara, antzez-ekintzaren barruan egoteko eta ekintza bertatik bertara bizitzeko aukera ematen zaio publikoari, lanaren pieza bat gehiago balitz bezala.

Gainera, arnas laburreko antzezlana bada ere, **lan handien modura pentsatua eta mamitua dago**. Horren erakusle da, esate baterako, **lau antzezleren lana** ikusteko parada izango dugula, bai eta askotariko arte-diziplinak ere: zuzeneko musika, dantza, rapsodia...

Txotxongilorik eta irratiarik gabeko txotxongiloen irrati-nobela bat da Takoidun Zapata Gorria. **Garai bateko irrati-nobelen giroa berreskuratu dugu**, gabardina eta kapelaz jantzitako detektibeekin, tabernetako giro lohiarekin, porroten itsasoan hondoratutako dantzariekin eta pianoaren musika apur bat dekadentearekin.



sinopsia

Beste maitasun poema bat idatzi dio.

Luzien detektibearen libreta beteta dago **Lilirentzako** poemez, eta hutsik susmagarrien izenez. Kalaportu herri tristean, hiltzaileak ere koldar hutsak direlako, eta ez dutelako inor hiltzeko ausardia nahikorik. **Liliren** burua beteta dago Broadwayn dantzatzeko ametsez, eta hutsik indarrez, adorez, kemenez.

Portuko tabernan zimeltzen dira **Lili** eta **Luzien** gau eta egun, **Anuskaren** piano basati eta lotsagabearen erritmoan, haien patu miserablea madarikatzen. Harik eta begiak ireki eta ingurura begiratu duten arte.

Luzien Etxegoien: ***_Jabi de la Ydalga***
Anuska Irisarri: ***_Igor Arzuaga***
Lili Etxekopar: ***_Haizea Paris***
Idazlea: ***_Mikel Ayllon***

Takoidun zapata gorri bat takoidun zapata gorri bat izan daiteke, edo zoruaren kontra tap-tap egiten duen musika-tresna bat, edo jolas bat, naraman eta nakarren barku bat, amets askoren habia bat, objektu desiratu bat, bigarren mailako pertsonaia bat zuri-beltzezko pelikula zahar batean, perbertsioak sortzeko makina bat, amesgaizto askoren habia bat, tortura-tresna bat, amets askoren kartzela bat... edo arma arriskutsu bat.

behar teknikoak

o **Espazioa/eszenatokia:**

Antzezlanak guztiak itxi batean egiteko prestatuta dago, 360º-ko formatuan, gutxienez 6x6 metroko espazio diafano batean. Hutsik dagoen edozein gelak balio dezake. Taberna handi bat ere baliatu daiteke, obra taberna batean girotuta baitago. Publikoak ez du leku bereiz bat behar, antzezlekuaren barruan egon baitaiteke.

Antzoki klasiko baten eszenatokiaren gainean egiteko aukera ere badago, italiar erara.

o **Argia:**

Obra egiteko espazioak itsua behar du, kanpoko argi naturalik gabe. Konpainiak jarriko du beharrezko argiteria guztia (aretoak argi-sistemaren bat baldin badauka, fokuren bat erabil liteke). 3 Argi-hartune arrunt behar dira. Ez da argi-teknikaririk behar.

o **Soinua:**

-Piano bat.

Aretoan pianorik sartzeko aukerarik ez badago, konpainiak eramango ditu beharrezko soinu-tresna guztiak (teklatu elektrikoa, injekzio-kutxa, soinu-mahaia, bozgorailuak eta kableak).

-Mikro bat, soinu-mahaia eta bozgorailuak (aretoaren ezaugarri akustikoak egokiak ez badira).

o **Kamerinoa**

Antzektokitik gertu dagoen kamerinoa, lau aktorerentzako lekuarekin, eta ispilu bat, ura eta komuna dituenak.

o **Muntatu eta desmuntatzeko lanak**

2 ordu muntatze-lanetarako eta ordubete dena jasotzeko.













